

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE
PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA DE
VIVIENDA DE IRUN, SAU-REN
KONTRATAZIOKO BARNE
INSTRUKZIOAK

▬



ATARIKOA

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAU Sozietate Anonimoa da, eta %100eko kapitala Irungo Udalaren titulartasunekoa da.

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea onestek lege-marko berri bat ezartzea ekarriko du Elkarte honen kontratazioetarako.

30/2007 Legearen 175.b) artikulua xedatzen du Herri Administrazioaren izaera ez daukaten sektore publikoko erakunde eta entitateetako organo eskudunek instrukzio batzuk onetsiko dituztela haien barne-eremuan nahitaez bete beharko direnak eta haietan kontratazio-prozedurak arautuko direla Publizitatearen, Lehiaren, Gardentasunaren, Berdintasunaren eta Diskriminaziorik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatuz, eta abantaila ekonomiko onena aurkezten duenari esleitu behar zaiola kontratua.

Kontratazio-arau hauek SPKLren arabera arautze harmonizatura lotuta ez dauden kontratuei aplikatuko zaizkie 175. artikuluan bertan xedatutakoaren arabera.

Aurreko horren ondorioz, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PUBLICA DE LA VIVIENDA DE IRUN SAU elkartearen kontrataziorako barne-prozedurak dauzkaten honako instrukzio hauek ezartzen dira.

1. ARTIKULUA.- Xedea.



Instrukzio hauen xedea da IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PUBLICA DE LA VIVIENDA DE IRUN SAU (aurrerantzean IRUNVI) elkartearen kontrataziorako barne-prozedura arautzea, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

2. ARTIKULUA.- Aplikazio esparrua

Ondoren adierazten diren arautze harmonikoari lotu gabeko esleipen-prozedurei aplikatuko zaizkie Instrukzio hauek.

Honako kontratu hauek daude instrukzio hauetara lotuak: balioa 4.845.000 eurotik behera estimatzen zaien obra-kontratuak; balio 193.000 eurotik behera estimatzen zaien hornidura-kontratuak; eta Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen II. Eranskinean (1etik 16rako kategoriak) deskribatuta dauden eta balioa 193.000 eurotik behera estimatzen zaien zerbitzu-kontratuak, eta II. Eranskinean jasotzen diren gainerako zerbitzu-kontratuak, haien zenbatekoa edozein delarik ere.

Era berean, Instrukzio hauetara lotuta daude Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 13.2 artikuluan aurreikusitako kontratuak, haien zenbatekoa edozein delarik ere.

3. ARTIKULUA.- Kontratazio-instrukzio hautera lotuta dauden kontratuen definizioa.

1. Obra-kontratua.

Obra-kontratuak dira SPKLko I. Eranskinean zerrendatutako lanetakoren bat egikaritzeko edo obra egiteko edo IRUNVIk zehaztutako beharrei erantzuten dion obra bat edozein bitartekoz egiteko xedea dutenak. Prestazio horiez gainera, hala dagokionean, dagokion proiektua erredaktatzea jaso ahal izango du kontratuak.

“Obra” da eraikuntzako edo ingeniari-tza zibileko lan-multzoaren emaitza, betiere berez funtzio ekonomiko edo tekniko bat betetzeko izan eta higiezin-ondasun bat xede duena.

2. Hornidura-kontratua



Hornidura-kontratuak dira produktu edo ondasun higigarriak erostea, finantza-errentan hartzea edo errentan hartzea (erosteko aukera dutela edo gabe) xede dutenak.

Nolanahi ere, honako hauek dira hornidura-kontratuak:

- Enpresaburua behartzen dutenak ondasun anitzak hurrenez hurren eta prezio unitarioan ematera, kontratua egiten denean guztizko zenbatekoa zehatz-mehatz definitu gabe, entregak IRUNVIren beharren arabekoak direlako.
- Telekomunikazioetako ekipoak eta sistemak edo informazioa tratatzeko haien dispositiboak eta programak erostea eta errentan hartzea eta azkeneko horien erabilera-eskubidea lagatzea xede dutenak.
- Fabrikaziokoak, betiere hornitzaileak entregatu behar duen gauza edo gauzak aurretik IRUNVIk ezarritako ezaugarri berezien arabera egin beharrekoak, nahiz eta bera behartuta egon behar diren material guztiak edo zati bat ematera.

3. Zerbitzu-kontratuak

Zerbitzu-kontratuak dira SPKLko II. Eranskinean definitutako kategorien arabera jarduera garatzeko edo obra edo hornidura baten bestelako emaitza lortzeko prestazioak xede dituztenak.

Era berean, neurrira garatzen diren ordenagailu-programak erosteko kontratuak ere zerbitzu-kontratuak dira.

4. ARTIKULUA.- Kontratatzeko Printzipio Nagusiak.

Instrukzio huek aplikatzearen ondoriozko kontratuak SPLKko 1. artikuluan jasotzen diren printzipioek arautuko dituzte, eta haiek esleitzea, beti, publizitatearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentzialtasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara lotuta egongo da, SPKLaren 175. artikuluekin bat etorritik.

Aurreko paragrafoan adierazitako printzipioen betetzea bermatzeko, instrukzio hauen arabera IRUNVIk izapidetzen dituen kontratazio-prozeduretan,



kontratatzeko organoen jarduera, beti, aipatutako printzipio horiek asebetzera bideratuko da.

Printzipio horiek betetzat hartuko dira Instrukzio hauen ondorengo ataletan aurreikusitako arauak betetakoan, eta haiek aplikatzeko eta interpretatzeko honako jarduera-arau hauek beteko dira:

a) Publizitatearen printzipioa betetzat hartuko da, IRUNVIren kontratu-informazioa ematen duten eta merkatua lehiaketara irekitzeko aukera ematen duten zabaltze- edo dibulgazio-bide egokiak eta behar bezain eskuragarriak balizko lizitazaile ororen onurarako aplikatzen direnean.

b) Gardentasunaren printzipioa betetzat hartuko da, dagokion kontratua esleitu aurretik balizko lizitazaile orori lizitazioan parte-hartzeko interesa duela adierazteko baldintzak ematen dituen informazio egokia zabaltzen edo dibulgatzen denean. Era berean, printzipio honek ekarriko du parte-hartzaile guztiek aurretik ezagutu ahal izatea esleitu nahi den kontratuari aplikatzeko arauak eta, era berean, ziur egotea arau horiek modu berean aplikatzen zaizkiela entitate guztiei.

c) Lehiaren printzipioa: Beharrezko neurriak hartuko dira, Instrukzio hauetan aurreikusitakoaren arabera, balizko lizitazaileei sartu eta parte hartzeko aukera emateko, kontratua abantaila ekonomiko onena duen eskaintzari esleitze aldera.

d) Konfidentzialtasunaren printzipioa errespetatzeko, IRUNVI behartuta egongo da enpresaburuek konfidentzialtasunez emandako informazioa ez zabaltzera, bereziki sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen alderdi konfidentzialak, betiere hartarako kausa justifikatuak baldin badaude. Era berean, printzipio hau aplikatzeak eskatuko du kontratistek errespetatu egin beharko dutela kontratuaren esleipena dela-eta eskuratzen duten informazio konfidentziala, betiere pleguetan edo kontratuan izaera hura eman zaienean edo berezko izaeragatik halaxe tratatu behar direnean.

e) Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa bermatzeko, prozeduren inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira. Neurri horiek honako hauek izango dira, gutxienez:

l) Kontratuen xedea diskriminaziorik gabe deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakin bat eta produktu bereziak aipatu gabe. Era berean, ez da aipatuko marka, patente, mota, jatorri edo produkzio jakinik. Salbuespena izango da, horrelako erreferentzia

bat egoki justifikatuta eta aipamenaz edo “horren baliokideaz” lagunduta badoa.

II) Ez da ezarriko baldintzarik, Europar Batasuneko beste Estatukide batzuetako balizko lizitatzaileri dagokienez, diskriminazio zuzena edo zeharkakoa dakarrenik.

III) Izangaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo bestelako dokumentu egiaztatzaileak aurkezteko, tituluak, ziurtagiriak eta beste diploma batzuk elkarri aitortzeko printzipioaren arabera onartu beharko dira beste Estatukide batzuetatik datozen dokumentuak.

IV) Interesa erakusteko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokiak izango dira, beste Estatukide batzuetako enpresek ebaluazio egokia egin eta eskaintza bat aurkezteko aukera izan dezaten.

V) Esleipen-prozedura batean hornitzaile bat baino gehiago lehiatzen diren kontratuetan, IRUNVIk bermatu egingo du haiek guztiek kontratuari buruzko informazio bera daukatela baldintza beretan.

5. ARTIKULUA.- Kontratazio-organoak eta Eskuduntzak

Administrazio Kontseilua eta Zuzendari Gerentea izango dira IRUNVIko kontratazio-organoak; eta beste organo batzuei balioz eman ahal izango zaizkie haien ordezkaritza edo ahalordea.

Administrazio Kontseiluak hari emandako ahalmen eta botereen arabera, Elkarteko zuzendari-gerenteak eskumenak dauzka kontratazioak onesteko eta zerbitzu- eta hornidura-kontratuak esleitzeko, haien zenbatekoa 18.000 eurotik gorakoa ez denean. Era berean, eskumenak izango ditu kontratazioak onesteko eta obra-kontratuak esleitzeko, haien zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa ez denean.

6. ARTIKULUA.- Berme galdagarriak.

6.1.- Kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak zein diren, kontratazio-organoak eskatu ahal izango die lizitatzaileri edo izangaiei, berme bat emateko,

haien eskaintzei esleipenera arte eutsi diezaieten, eta berme bat ere eskatu ahal izango zaio esleipendunari, prestazioa behar bezala egikaritzea ziurtatzeko.

Bermeen zenbatekoa kasu bakoitzean ezarriko da, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Eskatzen diren bermeak SPKLko 84. artikuluan aurreikusitako moduren batean aurkeztu ahal izango dira.

6.2.- Behin-behineko bermea eskatzeari buruz 30/2007 Legean ezarritako hautazko ahalmenaren arabera, oro har, IRUNVIK ez du halakorik eratzea eskatuko deitutako lehiaketetan, kontratu batzuetan agertzen diren salbuespenezko inguruabarrek eskatzea aholkatzen dutenean izan ezik.

7. ARTIKULUA.- Kontratistaren gaitasuna

IRUNVIrekin kontratua egiteko, nahitaezkoa izango da jarduteko gaitasun osoa daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, espainiarrak edo atzeritarrak, kontratatzeke debekuren baten barruan ez egotea eta kaudimen ekonomikoa, finantzatakoa eta teknikoa edo profesionala edukitzea.

Kasu bakoitzean eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-betekizun minimoek kontratuaren xedera lotuta egon eta harekiko proportzionalak izan beharko dute.

Sektore publikoko entitate guztiei aplikagarri gertatzen diren SPKLko xedapenen kalterik gabe, kontratatzeke kaudimen ekonomikoa eta finantzatakoaren eta tekniko edo profesionalaren egiaztapena kasu bakoitzean dagokion lizitazioan erabakitzen denaren arabera egingo da, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta; eta SPKLko 64tik 68ra bitarteko artikuluetan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango da, kontratazio-organoak egoki irizten badiu.

Era berean, SPKLko 54.5 artikuluen arabera, kontratuaren inguruabarrak eta ezaugarriak kontuan hartuta, hala dagokionean, enpresaburuaren kaudimena dagokion sailkapenaren bidez egiaztatu dadin eskatu ahal izango da.

Enpresaburuak eduki behar dituen kaudimen-betekizun minimoak eta haiek egiaztatzeke eskatutako dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren pleguan zehaztuko, Instrukzio hauen arabera eskatu ahal izanez gero.

8. ARTIKULUA.- Kontratatzeko prozedurak

I.- Arau komunak

I.1.- IRUNVIk Publizitatearen, Lehiaren, Gardentasunaren, Konfidentziasunaren, Berdintasunaren eta Diskriminaziorik ezaren Printzipioak gordeko ditu bere kontratazio-prozeduretan, eta abantaila ekonomiko onena duen eskaintzari esleituko dio, honako atal hauetan erabakitzen denaren arabera. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legea aplikatu behar zaien xedapenak beteko ditu.

I.2.- IRUNVIk Baldintza Pleguetan ezarritako gaitasun- eta kaudimen-betekizunak betetzen dituen pertsona fisiko edo juridiko ororekin kontratatu ahal izango du. Kontratuaren zenbatekoagatik beharrezkoa ez balitz Baldintza Pleguak egitea, beharrezkoak iritzitako betekizunak zehaztu ahal izango dira eskaintza-eskaeran, kontratuaren xedearan arabera.

I.3.- IRUNVIk, 30/2007 Legearen markoan, prozedura irekia, murriztua edo negoziatua publizitatearekin edo publizitaterik gabe aukeratu ahal izango du kontratazioetan.

I.4.- Administrazioako kontratuetarako 30/2007 Legean ezarritako moduan erabili ahal izango dira elkarrizketa lehiakorra eta proiektuen lehia, IRUNVIren izaera juridikoaren ezaugarrietara egokituta.

I.5.- Balio estimatua 50.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratazioetan, edo balio estimatua 18.000 eurotik beherakoa duten bestelako kontratuetan, kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna eduki eta prestazioa gauzatzeko behar den gaitasun profesionala daukan edozein enpresabururi.

I.6.- Prozedura irekian, interesa duen enpresaburu orok aurkeztu ahal izango du proposamen bat. Murriztuan, eskaintza-eskaera bidez entitate kontratugileak hautatutako enpresaburuek soilik aurkeztu ahal izango dituzte proposamenak. Prozedura negoziatuan, entitate kontratugileak hautatutako enpresaburuari esleituko zaio kontratua, aurretik kontratuaren terminoak enpresaburu batekin edo zenbaitekin kontsultatuta eta negoziatuta.

I.7.- Izaera jarraia duten horniduretan, urtean prezio-aldaketak izango dituztenetan, hura kontratatzeko oinarriko arauak onetsiko ditu dagokion organoak, eta zuzendari-gerentea ahalordetuko du hura garatzeko eta haien esleipen zehatzak egiteko.

I.8.- Arau hauetan ezarritako kopuruetan 30/2007 Legeak zehazten duenez, ez da barruan sartutzat hartuko Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion zenbatekoa (BEZ).

I.9.- IRUNVIk egindako kontratuen iraupena ezartzeko, kontuan hartu beharko dira prestazioen izaera, haren finantzaketaren ezaugarriak eta haiek egitea lehiara sartu beharra aldizka.

I.10.- Kontratuak luzapen bat edo batzuk egitea aurreikusi ahal izango du, betiere iraunaldian haren ezaugarriak aldatu ez badira eta hura esleitzeko lehia kontratuaren iraupen maximoa kontuan hartuta egin bada, luzapen-aldiak barne. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta beharrezkoa izango da esleipendunarentzat, kontratuak espresuki alderantzizkoa aurreikusten duenean izan ezik, horretarako aldean baimen isilbidezkoaren beharrik gabe.

II.- Kontratatzeko prozedurak.

II.1.- PROZEDURA OROKORRA: honako kontratuak dira aplikatuko zaienak:

- Hornidurak: 50.000€ eta 193.00€ bitartean
- Zerbitzuak: 50.000€ eta 193.000€ bitartean
- Obrak: 50.000€ eta 4.845.000€ bitartean

II.1.1. Kontratazioko espedientea

IRUNVIk, aurretiko izaeraz, Kontratazioko Baldintza Orokorraren Plegu bat egindo du, eta hartan, gutxienez, honako alderdi hauek zehaztuko dira:

- Lizitatzeko betekizunak (gaitasun eta kaudimen ekonomikoa eta teknikoa).
- IRUNVIk esleipenerako jarraitu beharreko izapideak.
- Eskaintzak baloratzeko irizpideak.

Gainera, IRUNVIk Zehaztapen Teknikoko Txostenaren dokumentua egingo du, eta hartan, kontratazioaren xedea eta eskatzen diren betekizun teknikoak definituko dira.



Kontratazioak gehienez izan behar duen zenbateko maximoa izango da lizitazioaren aurrekontu maximoa. Eskaintza guztiek lizitazioko aurrekontu maximo hori gainditzen badute, IRUNVIk hutsik utziko du aipatutako lizitazio-prozedura.

II.1.2 Lizitazioaren publizitatea.

IRUNVIk argitaratu egingo du lizitazioari dagokion informazioa, pleguak barne, Kontratugilearen profilean (www.irun.org/irunvi IRUNVIko web orrian), interesa duen lizitatzailerok lizitaziora aurkezteko aukera izan dezan, Instrukzio hauetako 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

II.1.3 Proposamenak aurkezteko epea.

IRUNVIk dagokion iragarkian edo, bestela, pleguan adieraziko ditu kasu bakoitzean lizitatzailerok beren proposamenak aurkezteko aplikatu beharreko epeak. Erabakitzen diren epeak, beti, egokiak izango dira, balizko lizitatzailerok orori aukera emateko, Europar Batasuneko beste Estaturikide batzuetako enpresak barne, ebaluazio egoki bat egin eta eskaintza bat aurkez dezaten.

II.1.4 Proposamenak aztertzea eta baloratzea.

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, kontratazio-mahaiak eskaintzak aztertuko ditu, eta haien egitura eta balorazioa egingo du, prezioaren irizpide desberdinei dagokionez.

Kontratazio-mahaiko kideak izango dira Administrazio Kontseiluko presidentea edo hark eskuordetzen duena, Zuzendari-gerentea eta Elkarteko Aholkulari Juridikoa, eta azkeneko horrek beteko ditu mahaiko Idazkari funtzioak. Hala nahi duten Kontseilariak ere Kontratazio-mahaiko partaide izango dira.

Kontratazio-mahaiak beharrezko iritzitako eta kontratuaren xedera lotutako txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, bere proposamena egin aurretik.

II.1.5 Esleitzeko proposamena.



Kasua zein den, Kontratazio-mahaiak edo IRUNVIko dagokion organoak egingo du proposamena, ustez abantaila ekonomiko onena duen eskaintzari esleitzeko, edo argibideak edo informazio osagarria ere eskatu ahal izango du.

Kontratazio-organoak kontratua proposatutako enpresari esleitu ahal izango dio, edo eskaintzaileetako besteren bati esleitu ahal izango dio, haren eskaintzak abantaila ekonomiko onena duela iritzita; kasu horretan, erabaki horren arrazoiak azaldu beharko ditu.

II.1.6 Esleipena jakinaraztea.

Lizitazio-prozedura erabakitzen denean, IRUNVIk esleipenaren berri emango die esleipendunari eta prozeduran parte hartu duten gainerakoei. Era berean, kontratua formalizatzeko beharrezko dokumentazioa eskatuko dio esleipendunari. Gainera, esleipenaren emaitza Kontratugilearen Profilean argitaratuko da (www.irun.org/irunvi/ IRUNVIko web orria), esleipendunaren izena eta esleipenaren zenbatekoa adierazita.

II.2.- PROZEDURA ERRAZTUA: honako kontratu-maila hauek dira aplikatuko zaienak:

a) Balio estimatua 200.000 eurotik gorakoa eta 1.000.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratuak, eta balio estimatua 60.000 eurotik gorakoa eta 100.000 eurotik beherako duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuak.

b) Balio estimatua 50.000 eurotik 200.000 euro bitartekoa duten obra-kontratuak, eta balio estimatua 18.000 eurotik 60.000 euro bitartekoa duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuak.

c) Balio estimatua 50.000 eurotik beherakoa duten obra-kontratuak, eta balio estimatua 18.000 eurotik beherakoa duten hornidura- edo zerbitzu-kontratuak.

II.2.a) a mailako kontratueterako prozedura erraztua.

Prozedura honetan, SPKLko 126. artikuluan arautzen diren deialdien publizitate-arauak jarraitu behar dira.

Kontratazioko Oinarrizko Baldintzen Plegu bat eta Zehaztapen Teknikoko Txosten bat egin beharko dira, Prozedura Orokorreko kasua bezala, eta



gainera, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira. Ezinezkoa bada eskaintza-kopuru minimo hori eskatzea, espedientean justifikatuko da.

Azaldutakoaren kalterik gabe, Kontratugilearen Profilean IRUNVIko telefonoa eta helbidea agertuko dira, interesatuta egon litezkeen lizitatzailleek martxan dauden a) mailako Kontratueterako prozedura erraztuari buruzko informazioa eskatzeko aukera izan dezaten.

Esleipena egindakoan, Kontratua erredaktatuko da, eta eskaintzak onartu ez zaizkien lizitatzaillei jakinarazi egingo zaie.

II.2.b) b mailako kontratueterako prozedura erraztua.

Prozedura honetan, ez da nahitaezkoa deialdiaren publizitatea.

Kontratazioko Oinarrizko Baldintzen Plegu bat eta Zehaztapen Teknikoko Txosten bat egin beharko dira, Prozedura Orokorreko kasua bezala, eta gainera, gutxienez hiru eskaintza eskatuko dira. Ezinezkoa bada eskaintza-kopuru minimo hori eskatzea, espedientean justifikatuko da.

Azaldutakoaren kalterik gabe, Kontratugilearen Profilean IRUNVIko telefonoa eta helbidea agertuko dira, interesatuta egon litezkeen lizitatzailleek martxan dauden b) mailako Kontratueterako prozedura erraztuari buruzko informazioa eskatzeko aukera izan dezaten.

Esleipena egindakoan, Kontratua erredaktatuko da, eta eskaintzak onartu ez zaizkien lizitatzaillei jakinarazi egingo zaie.

II.2.c) c mailako kontratueterako prozedura erraztua.

c) Mailako Kontratuak zuzenean esleitu ahal izango zaizkio jarduteko gaitasuna eduki eta prestazioa gauzatzeko behar den gaitasun profesionala daukan edozein enpresabururi, eskaintza-eskaera enpresaburu bakar bati eginda eskaera-gutunaren bidez. Ez du eskatzen Kontratazioko Oinarrizko Baldintzen Plegua eta Zehaztapen Teknikoko Txosten bat egitea, Prozedura Orokorrean bezala.

Gastua, aurrekontua, aipatutako eskabidea eta dagokion faktura bakarrik eskatuko du espedientearen izapideak.

III.- Kontratuen formalizazioa.

Hala dagokionean, dagokion pleguan jasota daudenean izan ezik, Instrukzio hauen mende IRUNVIk egiten dituen kontratuek honako aipamenak sartu beharko dituzte halaberrez:

- a) Aldeen identifikazioa.
- b) Kontratua sinatzeko sinatzaileek gaitasuna daukatelako egiaztapena.
- c) Kontratuaren xedearen definizioa.
- d) Kontratuari aplikagarri zaion legeriaren aipamena.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrendapena. Kontratuan hala adierazten bada, zerrendapen hori hierarkizatua egon ahal izango da, aldeek adostutako lehentasun-ordenaren arabera ordenatuz. Supostu horretan, eta ageriko hutsegitea dagoenean izan ezik, hitzartutako ordena erabiliko da dagokion prebalentzia erabakitzeko zenbait dokumenturen artean kontraesanik gertatuz gero.
- f) Prezio zehatza edo hura erabakitzeko era.
- g) Kontratuaren iraunaldia edo egikaritzen hasteko eta amaitzeko estimatutako datak, eta, era berean, aurreikusita baleude, luzpenena.
- h) Prestazioak hartzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Ebazpena bidezkoa den supostuak.
- k) Hala dagokionean, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren zabalpen objektiboa eta denborazkoa.

Oro har, kontratista hautatu ondorengo hamar egun naturaleko gehienezko epean egingo da kontratuaren formalizazioa, betiere pleguetan edo dagozkion eskaintzetan beste epe bat erabaki ez bada.

IRUNVIren kontratu-baimena kontratua formalizatuz adieraziko da, eta horrela kontratua egintzat hartuko da.



9. ARTIKULUA.- Indarraldian sartzea

Instrukzio hauek IRUNViko Administrazio Kontseiluak haiek onetsi ondoren hasten diren kontratazio-prozeduretarako onesten dituenean sartuko dira indarraldian.

10. ARTIKULUA.- Geroko aldaketak

Instrukzio hauek edozein unetan aldatu ahal izango dira, eta/edo zerbait gehitu ahalko zaie edo argibideak eman ere bai, Elkarteko Administrazio Kontseiluaren erabakiz.

Irunen,aren(e)an